



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xendazaletasun atala
132. zka. Urbasa-Andiako natura-parkea	Lizarraga-Lezaun/2019-11-23

Xendazale adiskideok:

Badator urteko azken irteera. Ibilaldi eroso proposatuko dizuegu, oso atsegingarria den lurralde batean, Urbasa-Andiako natura-parkean, beste zenbaitetan ere ibili garelarik paraje horretan. Zehatz esanda, azken aldia Ibero eta Lizarraga mendate arteko etapan izan zen, 2015eko urriaren 17an.

Mendate beretik Saratsako baltsa edo putzuetara igoko gara, handik eguneko lehen gailur txikira iristeko: Tontorroaundi (1.207m). Handik hegoaldera jaitsiko gara mendibide edo pista bateraino: pista hau Lizarraga mendatea Abarzuza/Lizarra herriekin elkartzen duen errepidearen 24 kilometroan hasten da gutxi gorabehera.

“Ikomarko Idoia”, ingurune zoragarri honetan ugari diren zaldiek sarri bisitatua, atzera utziko dugu eta igoaldi luzetxo bati ekingo diogu, baina aldapak ez du inoiz aparteko ahaleginik eskatzen, eta *Sima del Caballero* ospetsuraino joango gara, erraz ezagutzen dena bere babes-hormatxoagatik. Eta handik oso erraz iritsiko gara Trinitateko baselizaraino: Iturgoiengo Trinitatea (1.224m), ingurune biribildu batean kokatua.

XIII. mendeko eraikina, 1994. urtean zaharberritua. Portxe edo atari arkupedun bat du atxikia aterpe gisa tximiniarekin. Ikuspegi zabal-zabala norabide guztietan. Oso hurbil geratzen dira Malkasko (1.238m), gailurrik garaiena, Zurloz (1.224m), Artxurieta (1.228m), Lardanburu (1.183m) tontorrak.

Leku paregabea apur bat lasaitzeko. Gero eguneko azken gailurraren bila abiatuko gara. Beste gailur txiki bat, eta zirkuluerdi bat eginez igoko gara honen bizkarrera. Behin bertan gaudenean (Oskandia 1.217m), tontorrez tontor hegoaldera joko dugu, pixkanaka geure helmugara hurbiltzeko, Lezaungo herrira, eta bertan amaituko dugu ibilaldia.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Lizarraga-Lezaun

Beharrezko denbora	4,40 ordu
Goranzko desnibel metatua	408 metro
Beheranzko desnibel metatua	604 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	16.610 metro
 Ertain a	1  Orientazioa
	2  Joan-etorria
	1  Esfortzu a
	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geral.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-ger.)
Aurkezteko ordua	07:40 (Bilbo plaza) eta 07:45 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:45 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Lizarragako Benta
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2019-11-21eko 12:00etan

Oharra: a/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (joseig15@gmail.com)

